

Euskaldun zaharberri bat Gasteizen

Arrasatetik etorri nintzen 18 urterekin Letren Fakultatera ikastera. Hemen aurkitu nituen ikaskideek euskaraz egiten zuten, beti ez bada, gehienetan. Arrasaten, berriz, batzuekin beti euskaraz egiten nuen baina beste batzuekin gehienean gaztelaniaz jarduten nintzen, nahiz eta euskaldun sentitzen ginen eta ahoan lema asko genituen euskararen alde.

Eskerrak, Euskal Filologia egiten nuenez, euskara eta haren inguruko gaiez formakuntza handia jaso dut, oso eskertua nago nire irakasle izan direnekin. Gerora, ez zen bakarrik euskararekiko kezka, baizik eta hizkuntza gutxitu guztiekikoa.

Gogoratzen dut ikasle garai hartan ohartu nintzela nire aita hitzun berria zela...ez nintzen inoiz konturatu hartaz lehenago, ez neukan kontzientziarik. Oso euskaltzalea zen, eta ez zegoen alfabetatua, Aramaioko lagunekin ikasitako euskararen jarduten zen eta euskararekiko maitasun eta inkernua helarazi zidan hark, beste inork baino gehiago. Aurkikuntza bat izan zen niretzat.

Aldiz, Gasteiz hiriak eta Arabak ere asko erakutsi dit euskararen inguruan. Gasteizen geratu nintzen bizitzen eta asko erakutsi dit zenbat jendek egin duen ahalegina, euskara, ikasi eta erabiltzeko. Nire lehengusu batek dioen bezala, kontzientzia hartzen laguntzen du eremu erdaldunean bizitzeak. Dena ez da izango eragozpen! Balioan jarri behar da Araba, asko egin da eta euskararen alde azken hamarkadetan, (ia) hutsetik hasita eta kontra asko izanda.

Gerora, profesionalki euskara eta haren ikerketa da nire lan eremua, beraz, Arabako Campusak aukera hori eman dit: unibertsitate mailako ikasketa euskaraz egin eta lanbidea euskaraz egitekoa. Oro har, euskaraz jarduten dut fakultatean, eta euskaraz ikasteko esfortzu handia egiten duten pertsona askori esker da hori, bai irakasle, bai ikasle eta bai administrari eta TEKAZEL langileak. Balioan jartzekoa. Nire jatorrizko herrian ikusten dudana euskararen galeraren ondoan, eredugarriak zarete!

Bestetik, Gasteizen bizi izan naiz eta joera handia izan dudana arren gaztelaniaz hitz egiteko, egun euskaraz bizi naiz gehien bat. Nire familia euskalduna da nire bikotearen gurasoek seme-alabak euskaraz eskolatu zituztelako, esfortzu handiarekin. Egund nire seme-alabek bai aita, bai bi izebekin euskaraz hitz egiten dute, eta baita ere nire koinatu eta ilobarekin. Denek ikasi dute euskara etxetik kanpo. Eta zenbat guraso ezagutzen dudana haien gurasoen borrokaren ondorioz egun euskara transmititzen dienak, zailtasunak zailtasun! Anekdotak aurkitu ditut...irudikatu ezin nituenak, adibidez hau: 80 hamarkadan gaur egun aiton-amonak direnak, bigarren hezkuntza euskaraz egiteko eskubidea eskatzeagatik egindako manifestazioetan poliziak jipoitzen zituen! Gaur inork ezin du imajinatu zeinen iraultzailea den euskaraz ikasteko aukera izatea Gasteizen, hain aspaldi euskara galdutako testuinguruan eta gizarte kohesioaren mesedetan.

Egun, gainera, zorionez, munduko leku askotako bizilagunak dauzkagu eta niretzat izugarri aberasgarria da hizkuntza aniztasunean euskararen alde lan egiten duten gurasoekin ikastea, zein den euren ikuspegia, zein euren kezka eta erronkak. Kohesio sozialak kezkatzen nau eta hizkuntza guztiekiko jarrera onak lantzea berebizikoa da, bereziki euskara eta migrazioetik etorritako hizkuntzekikoa. Nire

aitaginarreba Caceresetik etorritakoa da, oso gaztetan, Valverdi du Fresnu herritik, eta fala berba egiten du. Ez du transmititu hizkuntza, baina ondo ulertzen da eta nik animatzen dut egin diezagun eta ahal dudana erabiltzen dut. Badugu lana!